

# Zergatik azalpen zientifikoak

Batek baino gehiagok galdetu daut, ea zer erlazio duen dibulgazio zientifikoak gure Herriaren problematikarekin. Oraingo honetan, neure eritzia azalduko dut.

Hainbat puntu dugu ukitzeko,\* geure egoeraren okerbidea zuzendu nahi baldin badugu. Hoiere artean, geure Herriaren ezjakinduria, Xabier Amurizak dioskun bezala. Hizkuntza bera ere landu behar dugu, inoiz baliozko gerta dakigun. Erraz kontura gaitezke, balio horrek kulturazko gai guztietara ailegatu behar duela. «Dena edo ezer ez», kantak dioen bezala. Hauxe da problema.

Dударик gabe, hiztegi tekniko baten premia sentitzen ari gara. Baina hiztegi berri bat ezin daiteke egin instante batetan —jendeak uler dezan nahi badugu behintzat—, hizkuntza Herriak erabiltzen duen tresna bat baita. Horregatik, usadioak berak sorterazten du hiztegia, eta ez alderantziz.\*

Begira diezogun orain usadioari. Zer da usadioa? Norok zertzen du? Kultur gaietan, nik uste, idatziz idatziz moldatzen da, hauxe baita nomenklatura sendo bat sorterazteko era bakarra. Beraz, hiztegi tekniko bat kreaktu gura\* badugu, geure praktikaz egin beharko dugu, hots,\* *gai horretaz idatziz.*

Niri dagokidanez, ez dut uste hiztegi sendo bat kreatuko dudarik, lehen pausoa emateaz konformatzen bainaiz. Hitz eta ere batzuk aukeratu eta erabiliko ditut; gero geroak esanen dauku, forma hauk\* onak ala txarrak diren. Hurrengo pausoa, hitz hauekin hiztegi tekniko konkretu bat zertu beharko dugu. Baina argi dagoena zera da, alegia,\* geuk sorterazten eta erabiltzen ez baditugu, ez pentsa inondik etorriko zaizkigunik.

Aipatu dudan lan honek ez du uharte\* aislatu bat izan behar; aitzitik,\* beste indar batzuekin batera jokatu behar dugu. Gaur egun Herriaren alfabetatzean sarturik gaude, eta honek batasuna eskatzen du. Hainbat eta hainbat jende ditugu, euskaraz eskolatzen ari direnak. Hauen artean ikastoletako haurrak ditugu. Hauxe dira, dudarik gabe, etorkizunaren aurrean garrantzirik gehien dutenak. Haur hauek euskal liburuaren premia handia dute; eta, behar hau asetzen ez badute, frustraturik gera\* litezke euskal kulturaren aldetik. Beraz, berauentzat materiala prestatzean, lan gogorra dugu. Era guztietako materiala: ikastolek bereziki behar dituzten liburak, ipuinak, tebeoak\* eta abar.

Inork ez du ukatuko, lan honek koherente eta elkarren osagarri izan behar duela. Ez dugu nork bere bideetik jokatu behar. Pauso berriak ematen, ez dugu hiztegi

pertsonaletan finkatu behar, aurretik eginik daudenetan baizik.\* Hiztegi hauen akatsak zuzenduz, noski,\* puntu honetan, agertu berri den *Ikastol Hiztegia* aipatu nahi nuke. Batasunaren bidetik ezer aurreratu nahi badugu, honen antzeko hiztegi teknikoetan oinarritu behar ditugu geure pausoak. Hiztegi honek bere akatsak ukan\* ditzake (eta ditu); baina, hala ere, pausorik zailena emana du. Toki guztietako euskaldunok manual bezala erabiltzen badugu, beste hainbat pauso emanen dugu, eta gure hizkuntza batuaz joanen da.

J. R. ETXEBARRIA

daude, dagoz  
dauku, dausku, digu  
diezogun, deiogun, dezaiozun  
daut, daust, dit  
dezan, daian

diosku, dinosku, esaten dauku  
ditzake, daikez  
gaude, gagoz  
litezke, leitekez